**Hiztegi azterketa** — *Hirugarren gizona.* G. Greene. Elkar.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ....................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **lozorro** ........................................ | «Zuzenean nire etxearekin komunikatu eta goizaldeko **lozorro** sakonetik iratzarri ninduen.» |
| **xahutu** ........................................ | «...zure *schilling* austriarrak kabaret batean **xahutzeko** bezain ergela baldin bazara...» |
| **zur eta lur** ........................................ | «**Zur eta lur** begiratu zion neskak...» |
| **zarrakatu** ........................................ | «...zulagailu elektrikoak erabili behar izan zituzten lur izoztua **zarrakatzeko**...» |
| **zapalatu** ........................................ | «...zuhaitzez inguraturiko ibilbide luzean zehar elur baltsa **zapalatuz**.» |
| **akitu** ........................................ | «...zona frantziarra hiru koloretako bandera zarpail **akituagatik** (..) nabarmentzen zen. » |
| **zantzu** ........................................ | «...zona errusiarrean sartzen ari zela, baina ez zegoen okupazio **zantzurik**.» |
| **zirkin** ........................................ | «**Zirkin** tipi bat egin eta berriro hasi, arnasestuka bezala.» |
| **norbere gain** ........................................ | «...zein potentziak eska zezakeen presoa **bere gain** hartzea.» |
| **zegoeneko** ........................................ | «...**zegoeneko** bagenekien gure bitartekoaren izena...» |
| **aldiri** ........................................ | «...Viennako **aldirietan** apartamendu haundi bat baitzeukan...» |
| **lurmendu** ........................................ | «...Vienna osoaren gainetik elurrak **lurmentzen** ari zuen...» |
| **hits** ........................................ | «...Vienna hiria, suntsitua eta **hitsa**, zonaka zatitua Lau Potentzien artean...» |
| **suntsitu** ........................................ | «...Vienna hiria, **suntsitua** eta hitsa, zonaka zatitua Lau Potentzien artean...» |
| **zirt edo zart** ........................................ | «Une batzuk izaten dira **zirt edo zart** erabaki beharrekoak...» |
| **bizarra egiteke** ........................................ | «...txima jario, **bizarra egiteke**, ulertu ezin zuen esperientzia batek aztoratuta.» |
| **tenore** ........................................ | «**Tenore** hartan Cooler ikustera ere inolako arazorik gabe joan zitekeen.» |
| **agi zenez (agi izan)** ........................................ | «...talde txiki bat bilduta zegoen, agi zenez oso eginkizun pribatu batean baitaraturik.» |
| **baitaratu** ........................................ | «...talde txiki bat bilduta zegoen, agi zenez oso eginkizun pribatu batean **baitaraturik**.» |
| **galtzarbe** ........................................ | «Tabako kartoi huts bat **galtzarbean** sartu eta bertan gelditu zitzaion.» |

| | |
|---|---|
| **Hiztegi azterketa** — *Hirugarren gizona.* G. Greene. Elkar. | Zuzen: |
| Izen-deiturak:........................ Maila-taldea: .................. <br> Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. <br> Azterketa honen balioa: ..... puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **lepo egina** <br> ........................ | «...sotoan **lepo egina** inor aurkitu ez balute bezala zetorren...» |
| **jauzkari** <br> ........................ | «...Ringeko estatua handiak, zaldi **jauzkariak** (...) arre nabarmentzen ziren arratsaren atzenetan.» |
| **erdietsi** <br> ........................ | «...propaganda fondoren batetik dirua **erdiesten** zuenean.» |
| **ukendu** <br> ........................ | «...pote bat, erdi usatutako pintura eta **ukenduak** zeuzkana.» |
| **aitzin** <br> ........................ | «...Polizia Militarreko koartelaren ateondo argituaren **aitzinetik** igaro zen.» |
| **hutsaren hurrengo** <br> ........................ | «Planak egiten mundiala zen (...) **hutsaren hurrengo**, ordea, bere planak aurrera eramateko orduan.» |
| **patu** <br> ........................ | «...**patuaren** eraginak ezin du inoiz ere artxiboetan kokalekurik aurkitu.» |
| **itzuri** <br> ........................ | «Ozta-ozta **itzuri** nuen, baina mahaiarekin estrapozu egin nuen.» |
| **ortzemuga** <br> ........................ | «**Ortzemuga** urrunago lerratu eta Danubio ageriago...» |
| **auhen** <br> ........................ | «Oinazezko **auhen** bat zabaldu zen leizean barrena, oihal baten zarratada bailitzan...» |
| **ihardetsi** <br> ........................ | «Odol piska bat besoarekin garbitu eta **ihardetsi** zidan...» |
| **mailburu** <br> ........................ | «—Non lurperatu behar dute? —galdegin zion ezezagunari **mailburuan**.» |
| **asaldura** <br> ........................ | «...nobeletan soilik azalerazten da barne **asaldura** edalontzi bat haustean.» |
| **garaikide** <br> ........................ | «Nobelagintza **garaikidearen** teknika.» |
| **jaio** <br> ........................ | «...nire gizona baino **jaioagoa** zen norbait Kochenera jarraiki zitzaion eta ezkutuka ibili.» |
| **txolin** <br> ........................ | «Neska **txolinen** gustuko gertatzeko apaindua zela zirudien.» |
| **salbuetsi** <br> ........................ | «Neska ere han zegoen, noski, baina batek beti **salbuesten** ditu emakumeak horrelako generalizazioetatik.» |
| **erauntsi** <br> ........................ | «Neska bat zen (...) kanpoan presaka zihoana elur **erauntsiaren** pean.» |
| **berme** <br> ........................ | «...nahiz eta Martinsen oroimenaren **bermea** ezin eman.» |
| **gaztigatu** <br> ........................ | «Nahita ez zion Kurtzi bere bisitaldiaren berri **gaztigatu**.» |

**Hiztegi azterketa** — *Hirugarren gizona.* G. Greene. Elkar.

Izen-deiturak:............................................................................................. Maila-taldea: ....................

Testuinguruua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **aburu**<br>........................................ | «...nahiko bahiketa zentzugabeak, gure **aburuz**...» |
| **ubeldu**<br>........................................ | «Nahiago dut zaren babo arraio hori barregarri utzi begiondoa **ubeldu** baino.» |
| **kili-kolo**<br>........................................ | «...nahaspilatutako mahai **kili-kolo** desegoki baten gainean...» |
| **etsi-etsian**<br>........................................ | «Mr. Crabbini **etsi-etsian** esan zion...» |
| **lagin**<br>........................................ | «...Martinsi **lagin** batzuk erakutsi nizkion.» |
| **adeitsu**<br>........................................ | «Martinsi harrera beroa eta **adeitsua** egin eta bere andere puska aurkeztu zion...» |
| **tupustean**<br>........................................ | «Martinsek **tupustean** (...) basamortu bat ikusi zuen...» |
| **baldan**<br>........................................ | «Martinsek hitz **baldan** hauek esan zizkion...» |
| **betilun**<br>........................................ | «Martinsek **betilun** bizkarra etzan zuen eta atzera ikusi zituen elurra, ohatila, Frau Kochen aurpegi etsitua.» |
| **apika**<br>........................................ | «Lotsatu samarturik zegoen **apika** Martinsen ezpain odolduagatik.» |
| **lipar**<br>........................................ | «**Lipar** batez, kale ilun ospelean, Coolerrengana zuzen joateko zori-zorian egon zen...» |
| **oroimin**<br>........................................ | «Limeren bizitza —hogei urtetan bederen— berea izan uste zuelako **oroimina** zuen.» |
| **iradoki**<br>........................................ | «Limek **iradoki** zuen Martinsek artikulu bat idatz zezakeela...» |
| **ileorde**<br>........................................ | «—Lehen begi kolpera gogoko gertatu ez zitzaidana (...) jantzita zeraman **ileordea** zen.» |
| **bailegoen**<br>........................................ | «...Kurtzek berak zabaldu zion atea berehala, bisitari baten zain **bailegoen**.» |
| **hunkitu**<br>........................................ | «...Kochen heriotzeak bihotzean **hunkitu** nau.» |
| **kinka larrian**<br>........................................ | «**Kinka larrian** zegoen beti Rollo Martinsen baitan...» |
| **zartatu**<br>........................................ | «...kanpai **zartatua** otoitz ordua jotzen ari zela...» |
| **zabuka**<br>........................................ | «...kabina **zabuka** igoten ari zen bitartean...» |
| **arranditsu**<br>........................................ | «Itzelezko famili hilobi **arranditsuei** elurrak komedia irrigarri airea ematen zien...» |

**Hiztegi azterketa** — *Hirugarren gizona.* G. Greene. Elkar.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ....................

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **buruaz beste egin** ........................................ | «Iruditzen zait agian hil egin zutela edo bere **buruaz beste egin** zuela.» |
| **aienatu** ........................................ | «Irudia **aienatu** zen eta pentsatu zuen harritzekoa zela une hartan bertan guztiak aurrean egotea...» |
| **intziri** ........................................ | «...**intziri** bitxi batek atzera begira eta aurpegi eman erazi zion...» |
| **imintzio** ........................................ | «**Imintzio** bitxia egin zuen eskuarekin belaun gaineko hautsa kentzeko bezala...» |
| **hegi** ........................................ | «Iluntzean Martins kanalaren **hegian** zehar zebilen...» |
| **maizter** ........................................ | «—Ikusten duzunez —zioen Herr Kochek— prest dago **maizter** berriarentzat.» |
| **jazarri** ........................................ | «...ikusi nuen nola bat-batean bere begi **jazarriak** nonbait finkatzen ziren.» |
| **bide** ........................................ | «...idazmahaiaren gainean, Harryk idazteko erabiltzen **bide** zuena...» |
| **aise** ........................................ | «...horrelako gizon bat **aiseago** asaldatzen da.» |
| **haztamuka** ........................................ | «...horma lauak ez zien koskarik erakutsi **haztamuka** zebiltzan bere behatzei.» |
| **ospel** ........................................ | «...hogei urte lehenago eskolako pasilu **ospelean**...» |
| **bilkura** ........................................ | «Hitzaurre batekin eman omen zion Crabbinek hasiera **bilkurari**...» |
| **lausotu** ........................................ | «Hirugarren whisky kargatuak Martinsen adimena **lausotzen** zuen ...» |
| **borrero** ........................................ | «...hirugarren gizon hura **borrero** baten gisara atzetik jarraiki balitzaio bezala.» |
| **azpikari** ........................................ | «—Hiri honetako bizibiderik lardatsena zuen **azpikaririk** gaiztoenetakoa zen.» |
| **lardats** ........................................ | «—Hiri honetako bizibiderik **lardatsena** zuen azpikaririk gaiztoenetakoa zen.» |
| **suspertu** ........................................ | «...heriotzeagatik hartutako zarraztadaz **suspertzen** hasita zegoen.» |
| **begirune** ........................................ | «...hemen **begirune** haundia dizute idazle kristau bezala...» |
| **aieru** ........................................ | «Hasieran **aieru** hutsetan oinarritutako frogak ziren, eta Martins urduritzen ari zen.» |
| **egotzi** ........................................ | «Haserre begiratua **egotzi** zion Mr. Crabbini...» |

**Hiztegi azterketa** — *Hirugarren gizona.* G. Greene. Elkar.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ....................
Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **estraineko** ........................ | «...Harry Limeren hiletan topatu bainuen **estraineko** aldiz.» |
| **seneratu** ........................ | «...Harry hilzorian hain **seneratua** baldin bazegoen ez zion telegramarik bidali bertan geldi zedin.» |
| **nimiño** ........................ | «...han goian aurpegi **nimiñoak** kristalaren kontra zanpatzen ziren.» |
| **gurtu** ........................ | «**Gurtzearekin** batera krak txiki bat entzun zen, bere alkandora zeluloidezkoa balitz bezala.» |
| **eskerga** ........................ | «...gurpil **eskerga** baten adarren antzera luzatzen ziren...» |
| **mokokaldi** ........................ | «Gure **mokokaldiek** ez ditek inoiz luze irauten.» |
| **saihestu** ........................ | «...gure iritziz nahita **saihestu** zuen bere jarraitzailea.» |
| **ahopeka** ........................ | «...Gräginek **ahopeka** galdetu zion Crabbini ahots lakarrez...» |
| **saldo** ........................ | «...gorpu bat lurrean, txori **saldo** bat inguruan bilduta.» |
| **ezordu** ........................ | «Goizaldeko **ezordu** etsituetan halako batean Nazioarteko Patruila agertu zen begiratu bat ematera...» |
| **uzkurtu** ........................ | «Goitik ikusi zituen, **uzkurtuta** zeudela, zamaren gainera makurtuta...» |
| **gogoeta** ........................ | «**Gogoetarako** astia izan zuen...» |
| **jaregin** ........................ | «Gizonak algara bati **jaregin** zion dozena bat buru itzuleraziz.» |
| **itaunketa** ........................ | «Geroago, Martinsi **itaunketa** xehea egiten ari nintzaiola, honela galdetu nion...» |
| **ez bat eta ez bi** ........................ | «...gero, **ez bat eta ez bi,** buruz salto egin eta ur lasterraren erdian murgildu zen.» |
| **hitzartu** ........................ | «Gaur goizean hitzaldi batzuk **hitzartu** ditut datorren asterako Insbruck-en eta Salzburgen...» |
| **gaitzerdi** ........................ | «—**Gaitzerdi** horrela gertatu izana —esan nion.» |
| **segizio** ........................ | «Frau Koch **segizioaren** atzean zetorren...» |
| **ezarian-ezarian** ........................ | «**Ezarian-ezarian** alde batetik hiria hondoratu zen...» |
| **zarraztada** ........................ | «—Ez zenuen **zarraztada** makala hartuko!» |

| | |
|---|---|
| **Hiztegi azterketa** — *Hirugarren gizona.* G. Greene. Elkar. | |
| Izen-deiturak:............................................ Maila-taldea: .................... | Zuzen: |
| Testuinguruaa aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak. | |
| Azterketa honen balioa: ..... puntu. | Nota: |

| | |
|---|---|
| **begiramen**<br>............................ | «Ez duzu nirekiko bat ere **begiramenik** erakutsi.» |
| **begietsi**<br>............................ | «Ez dut honenbesteko irudimena behinola izan omen zen bezala **begiesteko**...» |
| **atzeman**<br>............................ | «Ez dizut inoiz lagunduko Harry **atzematen**.» |
| **zintz egin**<br>............................ | «...eta bi bider **zintz egin** zuen garbiro eta arretaz, sudur zuloak banaka estaliz.» |
| **zendu**<br>............................ | «...estraineko aldiz topatu zuenetik heroetzat miretsi zuena **zendua** zela.» |
| **estolda**<br>............................ | «—**Estolda** nagusirako sarrera bat da.» |
| **gur**<br>............................ | «...eskerronezko eta kunplimenduzko esaeratxoak **gurrak** bailiran jaulkitzen joan ziren...» |
| **jaulki**<br>............................ | «...eskerronezko eta kunplimenduzko esaeratxoak gurrak bailiran **jaulkitzen** joan ziren...» |
| **inarrosi**<br>............................ | «Errusiarrak alemanez zenbait hitz ahoskatu eta paper batzuk **inarrosi** zituen eskuan.» |
| **purrustada**<br>............................ | «Erantzun bezala **purrustada** muker bat eta marmarka esandako zerbait bakarrik jaso zuen...» |
| **jipoitu**<br>............................ | «Entzun nuen nola Painek **jipoitu** berria zuen gizonari begirune haundiz honela esaten zion...» |
| **amarrukeria**<br>............................ | «Egia da erruduna zarela **amarrukeria** bidez dirua eskuratzeagatik.» |
| **kale eragin**<br>............................ | «...edanak **kale eragin** zion.» |
| **arregorri**<br>............................ | «...diagnostiko bat eman beharko balu, bakar-bakarrik adieraziko zukeen **arregorria** nabaria zela...» |
| **desenkusatu**<br>............................ | «**Desenkusatzen** jarraitu zuen...» |
| **irrika**<br>............................ | «...denbora guztian neskari begiratzen zion, sexuzko **irrika** arrastorik gabe...» |
| **arre**<br>............................ | «Danubio ibai **arre**, geldo eta lohitsu bat zen...» |
| **xuxurlatu**<br>............................ | «Crabbinek **xuxurlatu** zion...» |
| **asaldatu**<br>............................ | «—Coolerri kontatu nion —esan zuen **asaldatuta**—.» |
| **muzin egin**<br>............................ | «...buruak ematen zidan Martinsek ez ziola inolako edariri **muzin egingo**...» |

**Hiztegi azterketa** — *Hirugarren gizona.* G. Greene. Elkar.

Izen-deiturak:........................................................................................ Maila-taldea: ....................
Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

| | |
|---|---|
| **zirtzil** ........................ | «...burua makurtua eta alboratua zeramala, basapizti **zirtzil** batek bezala.» |
| **txirikordatu** ........................ | «...burdinazko hutsarte **txirikordatu** hartara amilduko ote zuen beldurrez bezala.» |
| **eramanarri** ........................ | «...borobil erdian jezarrita **eramanarri** ilunaz zain zeudelarik.» |
| **mehar** ........................ | «...bizkor aldegin zuen bere hanka luze eta **meharrek** korrikari eman nahian bezala...» |
| **zizeilu** ........................ | «Bizkar garaidun **zizeilu** zatar haiek ere behinolako kardinalen jarleku izanak ziruditen.» |
| **ahuspez** ........................ | «Beste txori bat pausatu zen (...) **ahuspez** zetzan gorpu isilaren inguruan.» |
| **barrabas belar** ........................ | «...bertan Praterra suntsiturik, soildurik eta **barrabas belarrez** josirik zegoelarik...» |
| **pegadizo** ........................ | «...bere lankideei **pegadizo** bat egin eta kotxea Anna Schimdt bizi zen kalerantz zuzendu zuen.» |
| **erdeinu** ........................ | «...bere lagunari zeozer komentatu eta **erdeinuz** lokartu zena.» |
| **otordu** ........................ | «...bere ikerketak **otorduetan** eten beharrik ez zuen.» |
| **haztatu** ........................ | «Bere eskua berriro pistola **haztatzen** ari zen.» |
| **txolinkeria** ........................ | «...bere buru lasai askoa baretzeko **txolinkeriak** ehuntzeko duen ohitura horrek...» |
| **adur** ........................ | «...berak hala nahi gabe berez gertatzen zitzaizkion gauzak, adurrekoak...» |
| **atxiki** ........................ | «Beraiek uste baino hurbilagoko ahots batek hormari **atxikitzera** behartu zituen...» |
| **beltzuri** ........................ | «**Beltzuri** aurkitu nuen, baina hitz egiteko gertu, neurri hertsien barne.» |
| **bekosko** ........................ | «**Bekosko** ilunez, bere kontuz ez balitz bezala hau gaineratu zuen...» |
| **behinola** ........................ | «**Behinola** dotore omen zen Barne Hiri honetan potentzia bakoitzak hilabeterako "buruzagitza" (...) bere gain hartzen du...» |
| **begitan hartu** ........................ | «**Begitan hartuko** naute. Gutxien-gutxienik Viennatik botako naute.» |
| **arbuiatu** ........................ | «Bazirudien natura bera ere ahalegin guztiak egiten ari zela Lime **arbuiatzeko**...» |
| **ponte** ........................ | «...batetik **ponteko** izen absurdoa, bestetik abizen holandar irmoa ...» |